



ARAUTEGIA

XAKE 2023

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Xake Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XL. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu 2023ko maiatzaren 27 eta 28an eta Ekainaren 3an Urretxun, Pagoeta Kultur aretoan.

1. JOKATZEKO MODUA

Bi modutara jokatu da :

Eskolarteko alebin mailako txapelketa banaka: Sistema suitzarra ezarriko da, 5 txandako partidatan:

- 1.go txanda: maiatzaren 27an 10:00tan
- 2. txanda: maiatzaren 27an 12:10tan
- 3. txanda: maiatzaren 27an 16:00tan
- 4. txanda: maiatzaren 28an 10:00tan
- 5. txanda: maiatzaren 28an 12:10tan
- Sari banaketa: 14:30tan maiatzaren 28an

Eskolarteko infantil mailako txapelketa banaka: Sistema suitzarra ezarriko da, 6 txandako partidatan:

- 1.go txanda: maiatzak 27an 10:00tan
- 2. txanda: maiatzak 27an 12:10tan
- 3. txanda: maiatzak 27an 16:00tan
- 4. txanda: maiatzak 27an 18:00tan
- 5. txanda: maiatzaren 28an 10:00tan
- 6. txanda: maiatzaren 28an 12:00tan

Sari banaketa: maiatzaren 28an, 14:15etan



Eskolarteko infantil mailako txapeketa taldeka: liga sistema ezarriko da
(dena denen kontra) 5 txandatan egutegi honen arabera:

- 1.go txanda: ekainaren 3an 10.00tan
- 2. txanda: ekainaren 3an 10.40tan
- 3. txanda: ekainaren 3an 11.20tan
- 4. txanda: ekainaren 3an 12.00tan
- 5. txanda: ekainaren 3an 12.40tan

Sari banaketa: 13:15tan

Mailak:

- o Taldeka: Infantilak (2009 eta 2010ean jaiotako neska-mutilak)
- o Banaka: Infantilak (2009 eta 2010ean jaiotako neska-mutilak)
- o 2. urteko alebinak (2011ean jaiotako neska-mutilak)

2. PARTAIDETZA

Banakako Alebinak: Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurralde Historiko bakoitzetik 3 partaide alebin 2. urtekoak (sexu bakoitzeko bat gutxienez) egon ahal izango dira. Eskolarteko Kirol Jokoak ospatzen diren lurralde federazioak plaza gehigarri bat erabil dezake.

Banaka Infantilak: Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurralde Historiko bakoitzetik 7 partaide infantil (gutxienez sexu bakoitzeko hiru ordezkari) egon ahal izango dira.

Eskolarteko Kirol Jokoak ospatzen diren lurralde federazioak plaza gehigarri bat erabil dezake.

Taldeka: Infantilak: lurralde bakoitzeko bi ikastetxe-talde (6 talde).

Talde bakoitzak lau jokalaria titular eta ordezeko bi, eskola kirolaren arautegian oinarrituz jokalaria guztiak gutxienez partida bat jokatu beharko dute, eta taldearen ordezkaria izango ditu. Taldeko partaide guztiak partida bat jokatu beharko dute gutxienez.



Lurralde bakoitzak ordezkari bat izango du.

Partaideen eskola kiroleko lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu

Lurralde bakoitzak txapelketa hasi baino astebete lehenago norbere lurraldeko irabazleen zerrenda emango du eta baita taldeen osaerarena ere telefono, fax edota e-mail bidez. Hau aldaezina izango da lurraldean justifikatutako eta onartutako kausa handi bat izan ezean.

Lurralde guztietako ikastetxe edo elkarteetako neska zein mutilek hartu dezakete parte. Partaide batek beste ikastetxe edo elkarte bat ere defendatu dezakete., baldin eta aurretik ere herriko txapelketan bertan jokatu badu eta bertako zerrendetan agertzen bada.

Parte-hartzaile batek bi lurralde ordezkari ditzake modalitate bereko bi probatan (banakakoa eta taldekakoa), baldin eta tartean diren foru aldundiek baimendu badute.

Txapelketa unean betetzen ez den ordezkariak ezingo da bete antolaketa egokitutako lurraldearen ordezkariekin.

3. BAKARKAKO ARAUTEGIA

Partidak apuntatzea derrigorrezkoa izango da, bandera jaitsi baino 5 minutu lehenago egiteari utzi daitekeelarik.

Partidak 55 minututara +5 segundoko gehikuntzarekin jokatuko dira.



Lurralde guztiak ezin izango ditu jokalaria maskulino edo femeninoak truke aldatu, beste sexutakoen, eta halako baldintzako jokalaririk ukan ezin izatekotan, bere plaza bete gabe geratuko da

Lurralde guztiak ordezkari bat aurkeztu ahal izango du talde-koordinatzaile bezala, eta bere barrutiaren interesen alde.

Lehenengo txandara, bi txanda jarraituetara edota tartekatutako hiru txandetara agertzen ez den jokalaria kanporatua geratuko da.

Txanda batera agertzeko gehieneko itxarote denbora ordu erdikoa izango da (txanda hasten den ordu ofizialetik aurrera).

Berdinketarik izanez gero bi jokalariren edo gehiagoren artean, honela jokatuko da:

1. Puntuazio progresiboen batura.
2. Sistema Bucholz totala
3. Erdiko sistema Bucholz (Jolastu dutenen onena eta txarrena kenduta)

Edozein arazo sortuko balitz, argibideak txapelketarako izendatutako talde teknikoaren ardura izango litzateke.

Jokalaria eta sailkapen onenera bere sexuan heltzen diren jokalaria, Espainiako lehiaketetan parte hartzeko eskubidea izango du.

Partehartzaile oro araudi hau eta FIDE-ren araudia errespetatu beharko ditu.

4. TALDEKAKO ARAUTEGIA

Ez da beharrezkoa partidak apuntatzea

Partidak 12 min-etara +5 segunduko gehikuntzarekin jokatuko dira.



Txanda batean agertzeko gehienezko itxarotea 10 minutukoa izango da hasiera ordu ofizialetik hasita.

Talderen baten justifikatu gabeko ez agertze bat ematen bada, txapelketatik kanporatua izango da.

Talde bat baliozkoa izan dadin gutxienez 3 jokalaria izan behar du, bestela deskalifikatua izango da.

Bi taldek edo gehiagok puntutan berdinduz gero, ondoko sistema erabiliko da:

1. BEREN ARTEKO EMAITZA
2. SONNEBORD-BERGER
3. SISTEMA HOLANDARRA.
4. LEHENENBIZIKO TAULAN BELTZEKIN JOKATU DUTENAK

Txapelketako antolaketa eta epai taldea:

Txapelketako zuzendaria: Lukas Iruretagoiena,

Epai nagusia: Ibon Martin

Epai laguntzailea infantil mailan: Alvaro Albaina

Epai laguntzailea alebin mailan: Edurne Zabaleta

Arlo teknikoan edozein arazo sortuko balitz aurretik aipatutako taldeak epaituko luke.

Partehartzaile oro araudi hau eta FIDE-ren araudia errespetatu beharko ditu.



5. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Taldeakako lehiaketan: Sari bana lehen eta bigarren sailkatutakoei.

Banakako lehiaketan: Domina bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.

6. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

7. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2023ko otsailaren 6ko AGINDUA, 2023ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XL. edizioaren deialdia egiteko dena
- e) Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendariak, 2023ko otsailaren 10eko EBAZPENA, 2023ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XL. edizioaren epaile bakarri izendatzen dena.
- f) Xakeko Euskal Federazioaren Arautegiak.



EUSKADIKO XL. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XL JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro,
jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.